

Une violence sexiste c'est quoi au juste ? Qu'est-ce que le harcèlement de rue ?

Le harcèlement de rue englobe les injures, gestes et regards obscènes, agressions ou tentatives d'agressions sexuelles, attouchements et filatures dans l'espace public ou semi public (rue et/ou transports) infligés à l'encontre d'une personne ou d'un groupe de personnes.

Les comportements suivants sont à considérer avec attention :

Les regards insistants : À la différence d'un regard dans le vague, les regards insistants sont fixés sur une ou plusieurs personnes et/ou sur une ou plusieurs parties du corps, dans le but de provoquer un sentiment de malaise.

L'approche verbale insistante : Cette situation commence généralement par un simple échange verbal, tel que : "Où se trouve le jardin public ?" Suivi de questions de plus en plus insistantes et intimes : "Tu habites près d'ici ? Tu es seul.e, tu fais quoi ce soir ?" Si l'interpellé.e est mal à l'aise ou ne souhaite plus répondre mais que les questions continuent, on parle de harcèlement et non de drague.

Les injures publiques : Les injures sont une suite de paroles violentes et/ou offensantes, une expression outrageante ou méprisante, non précédée d'une provocation et qui n'attribue aucun fait précis à la victime. Elles peuvent être accompagnées de menaces.

Filatures/Stalking : En anglais le stalking, désigne le fait de suivre de manière ponctuelle ou répétitive une personne lors de ses déplacements sur une distance plus ou moins longue. Le/la stalker peut être un.e total.e inconnu.e, une connaissance ou même un.e proche. Cette attitude est intimidante et menaçante.

L'exhibitionnisme : L'exhibition sexuelle est le fait d'imposer au regard un comportement obscène effectué sur soi-même (masturbation, exhibition du sexe ou de parties jugées sexuelles) ou sur autrui (rapports sexuels), dans un lieu visible de tous. D'après le code pénal, l'exhibitionnisme relève de l'**agression sexuelle** et est donc passible de 15000€ d'amende et d'un an d'emprisonnement.

Frotteurisme : Les frotteurs profitent de la foule ou des regroupements tels que les transports en commun - ou accoudés au comptoir - pour se coller à leurs victimes sans leur consentement. Ces actes peuvent prendre diverses formes, entre des frottements insistants à travers les vêtements, jusqu'à la masturbation en contact direct avec les vêtements ou la peau.

Agressions sexuelles et viol : Quiconque se rend coupable d'actes de nature sexuelle (toucher ou caresser le sexe, les cuisses, la poitrine...) sur une personne sans son consentement, par une manipulation émotionnelle, par du chantage, par surprise ou par contrainte physique, commet une agression sexuelle.


En dénonçant, les victimes ou témoins de harcèlement ou d'agression **souhaitent uniquement le respect** dans les espaces publics, au travail, à l'école ou à la maison. Il ne s'agit donc pas de partir en guerre contre un genre mais de lutter contre le fléau du harcèlement.

Si vous êtes témoin, des techniques sans danger peuvent être mises en place, quel que soit votre sexe ou votre corpulence.

La différence entre drague et harcèlement c'est le consentement.



Les informations de ce document sont tirées du **Guide de secours contre le harcèlement de rue en Nouvelle-Aquitaine**. Retrouvez le guide complet intégrant les comportements et techniques sans danger à avoir en scannant le QR code.



Zer da genero-indarkeria? Zer da karrikako jazarpena?

Karrikako jazarpenak, pertsona bat edo talde baten kontra egindako irainak, keinu eta begirada lizunak, sexu eraso edo eraso saiakerak, hunkituak, eta eremu publikoan edo erdi-publikoan (karrikan, garraioetan) jasanarazitako barrandatzeak biltzen ditu .

Ondoko jokamolde hauek arretaz kontuan hartzekoak dira

Begirada tematiak: Zehaztugabeko begirada bat ez bezala, begirada tematiak pertsona bati edo gehiagori edota gorputzeko atal bati edo gehiagori jartzen zaizkio, ezinegona sentiarazteko asmoz.

Hitzeko hurbiltze tematia: Gehienetan, egoera hori solas simple batekin hasten da, hala nola: "Non dago lorategi publikoa?" Ondotik datoz galdera temati eta intimoak: "Hemendik hurbil bizi zara? Bakarrik zaude, zer egingo duzu gaur gauean?" Galdekatua deseroso sentitzen bada edo ez badu erantzun nahi, baina galderak bere horretan segitzen badute, jazarpenaz hitz egiten da eta ez dragatzeaz.

Irain publikoak: Irain publikoa hitz bortitz edota gaitzigarrien segizio bat da, adierazpen laidogarri edo mespretxagarri bat, aitzinetik probokatu gabea eta biktimari inolako gertaera zehatzik egozten ez diona. Mehatsuz beterik etor daiteke.

Barrandatzeak/Stalking: Ingelesez, stalking deitzen zaio norbaiten joan etorri labur edo luzeen kari, noizean behin edo behin eta berriz pertsona hori barrandatu eta segitzeari. Stalkerra erabat ezezaguna, ezaguna edo hurbileko bat ere izan daiteke. Jarrera horrek lotsarazten du eta mehatxagarria da.

Exhibizionismoa: Sexu erakustaldia da guziek ikus dezaketen leku batetan, jokabide lizun bat denen begietara inposatzea. Jokabide hori norberari eragindakoa izan daiteke (masturbazioa, sexua edo gorputzeko atal ustez sexualak erakustea), edo besteari (sexu-harremanak). Zigor Kodearen arabera, exhibizionismoa sexu eraso da, eta ondorioz 15.000 €-ko isuna eta urtebeteko kartzelaldia ekar dezake.

Igurtzikeria: Igurtzikeriazaleak jendetzaz edo elkarretaratzeetaz baliatzen dira, beren biktimen baimenik gabe haien kontra-kontra lotzeko, adibidez garraio publikoetan edo barran ukondoa emanik. Egitate horiek hainbat forma har ditzakete, jantzien artetik behin eta berriz torratzetik, arropa edo azala zuzenen hunkituz masturbatzeraino.

Sexu erasoak eta bortxaketa: Bere onarpena eman ez duen pertsona bati, manipulazio emozional baten bidez, xantaia bidez, ezustean edo bortxapean, izaera sexuala duten ekintzen errudun egiten den orok (sexua, izterrak, bularrak... hunkituz edo ferekatuz) sexu-erasoa egiten dio.

Salatuz, jazarpen edo erasoen biktima edo lekukoek, espazio publikoetan, lanean, eskolan edo etxean nahi duten gauza bakarra, **errespetua** da. Kontua ez da beraz genero bati gerla egitea, baizik eta jazarpenaren gaitzaren kontra borrokatzea.

Lekuko bazara, zure generoa edo gorpuzkera edozein izanik ere, arriskurik gabeko teknikak plantan jar daitezke.

Dragatzea eta jazarpenaren arteko desberdintasuna onarpena da.



Agiri honetako informazioa **Akitania Berriko kale jazarpenaren aurkako sorospen gidatik** ateratzen da. QR kodea eskaneatuz, izan beharreko **portaera eta arriskurik gabeko teknikak** biltzen dituen gida osoa berreskura ezazu.

